


# Zumaiako etxeen izenak

Iaz leku-izenak lantzen hasi ginen, eta aurten etxe-izenak proposatzen dizkizuegu. Herriko etxe askok badu bakoitzak bere izena, zenbaitek kanpoan idatzita ere bai, baina beste askoren izenak ez dira hain ezagunak, eta garrantzitsua da erabili eta iraunaraztea. Horietako batzuek garai jakin bat ezagutzeko arrastoak ematen dizkigute: ingurune bat nolakoa zen, etxekoak zer lanbide zuen, nagusia nor zen, etab.

Horregatik, egutegi honetan bildu ditugu izen horietako batzuk, eta gaia eskolan eta etxekoekin lantzen badugu, konturatuko gara etxeen izenek ere balio dutela Zumaia hobeto ezagutu eta maitatzeko.




Irudiak: Ander Hormazuri

Hemos reunido en este calendario varios nombres de casas que nos dan pistas acerca de cómo era Zumaia en otros tiempos. Con este calendario os queremos invitar a conocer la historia de algunos nombres y conocer así mejor nuestro pueblo.

Argitaratzailea:

Zumaiako Udala

euskara txanpan



Kondekoa

# URTARRILA

| astelehena | asteartea | asteazkena | osteguna | ostirala | larunbata | igandea |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | 1 |
| 2 | 3 | 4 | ◐ 5 | 6 | 7 | 8 |
| 9 | 10 | 11 | ○ 12 | 13 | 14 | 15 |
| 16 | 17 | 18 | ◑ 19 | 20 | 21 | 22 |
| 23 / 30 | 24 / 31 | 25 | 26 | 27 | ● 28 | 29 |

● ilberria ○ ilbetea ◐ ilbehera ◑ ilgora



# OTSAILA

Urtzuriaga

| astelehena | asteartea | asteazkena | osteguna | ostirala | larunbata | igandea |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 1 | 2 | 3 |  | 5 |
| 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 |
| 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 |
| 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 |
|  | 28 | | | | | |

ilberria ilbetea ilbehera ilgora



Etxeberritxiki

# MARTXOA

euskara txanpan

| astelehena | asteartea | asteazkena | osteguna | ostirala | larunbata | igandea |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 |
| 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 |
| 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 |
| 27 | 28 | 29 | 30 | 31 | | |

ilberria ilbetea ilbehera ilgora



Praktikoenekoa

# APIRILA

euskara txanpa

| astelehena | asteartea | asteazkena | osteguna | ostirala | larunbata | igandea |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | 1 | 2 |
| 3 | Korrika Zumaian | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 |
| 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 |
| 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 |
| San Telmo eguna  | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 |

ilberria ilbetea ilbehera ilgora



Jardineroetxea

# MAIATZA

euskara txanpAn

| astelehena | asteartea | asteazkena | osteguna | ostirala | larunbata | igandea |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | ◐ 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |
| 8 | 9 | ○ 10 | 11 | 12 | 13 | 14 |
| 15 | 16 | 17 | 18 | ◑ 19 | 20 | 21 |
| 22 | 23 | 24 | ● 25 | 26 | 27 | 28 |
| 29 | 30 | 31 | | | | |

● ilberria ○ ilbetea ◑ ilbehera ◐ ilgora



Kristonekoa

# EKAINA

euskara txanpa

| astelehena | asteartea | asteazkena | osteguna | ostirala | larunbata | igandea |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | ◐ 1 | 2 | 3 | 4 |
| 5 | 6 | 7 | 8 | ○ 9 | 10 | 11 |
| 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | ◑ 17 | 18 |
| 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | ● 24 | 25 |
| 26 | 27 | 28 | 29 San Pedro eguna | 30 | | |

● ilberria ○ ilbetea ◑ ilbehera ◐ ilgora



Ondargain

# UZTAILA

euskara txanpan

| astelehena | asteartea | asteazkena | osteguna | ostirala | larunbata | igandea |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | 1 | 2 |
| 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 |
| 10 San Kristobal Narrondon | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 |
| 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 |
| 24 / 31 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 |

● ilberria ○ ilbetea ◐ ilbehera ◑ ilgora



Konfiterozarrenekoa

# ABUZTUA

| astelehena | asteartea | asteazkena | osteguna | ostirala | larunbata | igandea |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 |
| ○ 7 | 8 | 9 | 10 | 11 Euskal Jaia | 12 | 13 |
| 14 San Bartolome Oikian | ◑ 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 |
| ● 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 |
| 28 | ◐ 29 | 30 | 31 | | | |

● ilberria ○ ilbetea ◑ ilbehera ◐ ilgora



Apaizetxea

# IRAILA

euskara txanpan

| astelehena | asteartea | asteazkena | osteguna | ostirala | larunbata | igandea |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | 1 | 2 | 3 |
| 4 | 5 | ○ 6 | 7 | 8 Arritokieta eguna | 9 | 10 |
| 11 | 12 | ◑ 13 | 14 | 15 | 16 Olarro eguna | 17 |
| 18 | 19 | ● 20 | 21 | 22 | 23 | 24 |
| 25 | 26 | 27 | ◐ 28 | 29 San Migel eguna Artadin | 30 | |

● ilberria ○ ilbetea ◑ ilbehera ◐ ilgora



Kresala

# URRIA

euskara txanpA

| astelehena | asteartea | asteazkena | osteguna | ostirala | larunbata | igandea |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | 1 |
| 2 | 3 | 4 | ○ 5 | 6 | 7 | 8 |
| 9 | 10 | 11 | ◑ 12 | 13 | 14 | 15 |
| 16 | 17 | 18 | ● 19 | 20 | 21 | 22 |
| 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | ◐ 28 | 29 |
| 30 | 31 | | | | | |

● ilberria ○ ilbetea ◑ ilbehera ◐ ilgora



Iturrikoa

# AZAROA

| astelehena | asteartea | asteazkena | osteguna | ostirala | larunbata | igandea |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 1 | 2 | 3 | ○ 4 | 5 |
| 6 | 7 | 8 | 9 | ◑ 10 | 11 | 12 |
| 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | ● 18 | 19 |
| 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | ◐ 26 |
| 27 | 28 | 29 | 30 | | | |

● ilberria ○ ilbetea ◑ ilbehera ◐ ilgora



Oiartzunetxea

# ABENDUA

| astelehena | asteartea | asteazkena | osteguna | ostirala | larunbata | igandea |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | 1 | 2 | 3 Euskararen Eguna |
| 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
| 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |
| 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 Olentzero eta Gomezago |
| 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | 31 |

ilberria ilbetea ilbehera ilgora

## ETXE-IZENEN BILTZAILEA



**Bonifazio Etxegarai Korta** zumaiarra (1878-1956) legelaria izan zen, eta besteak beste, II.Errepublika garaiko estatutua lantzen aritu zen. Idazlea ere izan zen, eta hainbat liburu eta 200 artikulu baino gehiago idatzi zituen. Anaia Karmelo euskaltzaina zen, eta 1925ean hil zenean Euskaltzaindian haren tokia hartzeko izendatu zuten Bonifazio. Sarrera-ekitaldia Zumaian bertan izan zen, 1926ko urriaren 29an, eta Euskal Herriko etxeen izenei buruzko hitzaldia eman zuen Bonifaziok, tartean Zumaiako izen batzuk aipatuta: **Marea-errota, Zubiaurre, Iparragirre, Torre, Gorostiaga, Ardantza**… Gerora ere izenak biltzen jarraitu zuen, horri buruz artikulu batzuk idazten ere bai, eta 1944ko gutun batean aditzera eman zuenez, 15.000 fitxa baino gehiago zeuzkan gordeta.

## ETXE-IZENAK IZAN DAITEZKE...

- Toki-izenak: **Gorostiaga, Lizarraga, Agirre, Itzurunzelai**…
- Etxea nolakoa den/zen azaltzen dutenak: **Etxetxo, Torreberri, Palaziotxikia**…
- Ingurua nolakoa den/zen: **Aitz-gain, Ondargain**...
- Etxeko baten lanbidea zein den/zen: **Alpargateroenekoa, Makinistaenea, Maisukoa, Apaizetxea**…
- Nor bizi den/zen: **Benturenea, Mikaelenea, Paskualenekoa**…
- Familiaren ezizenak: **Xarrenekoa, Jangoikotxikienekoa, Beltzenekoa**...
- Herri edo hirien izenak: **Benezia, Alikante, Karakas, Amezketa**...
- Asmatutako izen berriak: **Tokialai, Goizeder, Betiko**...




Irudia: *Xamar (Orhipean)*

## DESAGERTUTAKO ETXE BATZUK



### ETXE-ONA

Gaur egun **Bonbilloko** etxeak dauden inguruan egon zen jatetxeak hala izena zuen, eta makina bat bazkari, merienda eta ospakizun egin zituzten han zumaiarrek, jende askori jaten emateko prestatua zegoelako. Patio eta loradegi dotoreak zeuzkan, eta musika-emanaldiak ere antolatzen zituzten bertan. Jatetxea 1970ean zabaldu zuten eta 2003an bota zuten etxea.



### ROSENDONEKOA

1932an Rosendo Alberetek eraikitako etxe dotorea, **Basadizar** izeneko parajean. **Estazioko** industrialdea egiteko bota zuten. Irudian Urola ibaiak gainez egin du eta basadiak urez estalita geratu dira etxearen inguruan.



### XOXOKOA

**Urbietaenea** ere deitzen zitzaion 1942an eraiki zuten etxeari, Urbieta familiarena izan zelako. Harrizko behealde dotorea zuen etxeak, itxura batean Flores harrobiko gorria, eta saihesbidea egiteko bota zuten 2006 inguruan. Izena, ordea, ez da galdu, bizilagunek **Basustagañan** egindako etxe berriari **Xoxokoa** izena jarri ziotelako.

## ETXEEN IZENAK ETA DEITURAK

Etxea izan da euskal gizartearen oinarri eta funtsa. Lehen etxea ez zen uneko biztanleena bakarrik, familia osoarena baizik. Etxetiarrek bazekiten etxea ez zela berena, haiek zirela etxearenak. Jendeak etxearen izena hartzen zuen gainerakoengandik bereizteko, eta denborarekin familiaren deitura bihurtu ziren izen horiek. Gero, deiturak finkatzen joan ziren, ez ziren aldatzen etxe batetik bestera joan eta gero ere. Horrela bereizi ziren hasieran bat zirenak: deiturak eta etxeen izenak.

Hala ere, herrietako eguneroko bizitzan, jendea askotan etxearen izenez ezagunagoa zen deituraz baino. XI. mende ingurura arte jendearen deitura sortzeko izen bat besterik ez zen erabiltzen, eta ondoren bi izen erabiltzeko joera nagusitu zen: lehena, aitaren erreferentzia (edo zenbaitetan amarena), normalean -ez, -iz eta -z bukaerak izaten zituztenak; bigarrena, berriz, toki edo etxearen izena. Horrela sortu ziren deitura bikoitzak: Beltran Ibañez de **Dornutegi**, Juan Martinez de **Otsango**, etab. Deitura sortzeko modu hori herri osoan zabaldurik egon zen XVI. mende aldera arte, eta Araban eta Lizarra aldean mantendu da orain arte bizirik. Gainerakoetan, aitaren erreferentzia baztertuz joan zen, asko errepikatzen zirelako, eta bigarren zatiak bakarrik (**Mantzizidor, Etxabe**…) iraun zuen deitura gisa.

*(Xamar-en Euskara Jendea liburutik moldatua)*